BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3867

1205/2011 EBAZPENA, uztailaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoari atxikitako zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoek bilkura zientifikoak eta prestakuntza-ekintzak antolatzeko laguntzen deialdia egiten da.

Osasun-arloan egin beharreko ikerketa- eta prestakuntza-lana zabala eta anitza da oso, eta horrexegatik, beharrezkoa da zientzia-arloko informazioa eta ezagupenak elkarrekin trukatzea, bai eta harreman hori garatzea eta hobetzea ere. Horretarako, bilkura zientifikoak antolatzea oso bide egokia da.

Osasun Sailak du bere gain hartuta, Osasun Antolamenduko Zuzendaritzaren bitartez, osasun-arloko ikerketa eta langileen prestakuntza sustatzeko eskumena; betebehar hori hezurmamitzeko, dagokion aurrekontu-atala du prest, hirugarrenei egindako transferentzien bitartez, kongresu eta bilkura zientifikoak antolatzen laguntzeko. Diru-transferentzia horiek egiteko prozedura ahalik eta eragingarriena izan dadin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak kudeatu izan ditu orain arte, Osasun Saila lagun duela, ente publikoari atxikitako osasun-zentroei eman beharreko laguntzak.

Horregatik, ildo berari jarraiki, 2011rako honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoari atxikitako zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoek bilkura zientifikoak antolatzeko laguntzen deialdia egitea eta oinarri orokorrak onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena.– Eskaeraren eredu normalizatua onartzea (II. eta III. Eranskinak).

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Ebazpen honetan aurrez zehaztu ez diren gaiak direla-eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa beteko da, alegia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoa.

Bigarrena.– Azaroaren 26ko Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatu zen lege hori), Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, ebazpen honen –eta berau garatuko duten behin betiko ebazpenen aurka–, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Giza Baliabideetako zuzendariak emandako behin betiko ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariari (Araba kalea 45, 01006 Gasteiz).

Zuzendari nagusiak emandako ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari (Araba kalea 45, 01006 Gasteiz).

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ENTE PUBLIKOARI ATXIKITAKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDE PUBLIKOEI BILKURA ZIENTIFIKOAK ETA PRESTAKUNTZA-EKINTZAK ANTOLATZEKO EMANGO ZAIZKIEN LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORRAK

1.– Xedea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei zuzendutako diru-laguntzak arautu eta horietarako deialdia egitea da ebazpen honen helburua. Euskal Autonomia Erkidegoan 2011. urtean egiten diren edo urte horretan antolatzen hasten diren osasun-jarduera zientifikoen prestakuntza- eta hedapen-jarduerak antolatzearen ondoriozko gastuak finantzatzeko izango dira laguntza hauek. Bi modalitate izango dira:

a) Bilkura zientifikoak antolatzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi eta antzekoak antolatzea.

b) Prestakuntza-ekintzak antolatzea (ikastaroak, tailerrak eta mintegiak).

2.– Baliabide ekonomikoak.

Laguntzetarako finkatutako kopurua 90.000 eurokoa da; nolanahi ere, kopuru hori aldatu egin daiteke, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusita, eta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe gelditu den diruaren arabera.

Oro har, zenbateko horren erdia bilkura zientifikoen diru-laguntzarako izango da, eta beste erdia, berriz, prestakuntza-ekintzen diru-laguntzarako. Banaketa hori alda daiteke, ordea, deialdi bakoitzean aurkeztu diren eskaeren arabera.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1.– Diru-laguntza bakar-bakarrik izango da bilkura edo prestakuntza-ekintzaren izaera zientifikoarekin zuzenean lotuta dauden gastuak ordaintzen laguntzeko.

3.2. artikulua.– Diruz lagunduko ez diren kontzeptuak.

– Ekintza sozialei lotutako gastuak: sukaldaritza, ornamentazioa, sariak edo antzekoak.

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko pertsonak bilkura edo prestakuntza-ekintza horietara joan izanak sortutako gastuak.

4.– Diru-hornidura eta laguntzen bateragarritasuna.

4.1.– Bitartekoak mugatuak direnez, banaketa bidezko bat lortze aldera, diru-laguntza horien gehienezko eta gutxieneko kopuruak ezartzen dira:

– Bilkura zientifikoetan: gehienez, 5.000 euro, eta gutxienez, 100 euro. Nolanahi ere, eskatutako zenbatekoa gutxieneko zenbateko hori baino txikiagoa bada, eskatutako hori emango da.

– Prestakuntza-ekintzetan: gehienez, 4.000 euro, eta gutxienez, 100 euro. Nolanahi ere, eskatutako zenbatekoa gutxieneko zenbateko hori baino txikiagoa bada, eskatutako hori emango da.

Salbuespenez, gehienezko muga horiek gaindi daitezke, esleitutako zenbateko oso horretan nahikoa soberakin badago.

Emandako laguntza ezingo da inolaz ere izan eskaerarekin aurkeztutako aurrekontuan ageri den diruz laguntzeko defizita baino handiagoa, alegia, diruz lagundu daitezkeen gastuen eta sarreren arteko aldea baino handiagoa.

4.2.– Laguntzen bateragarritasuna.

Diru-laguntza hauek bateragarri izango dira beste edozein eratako diru-laguntzekin. Erakunde desberdinetatik -helburu bererako- guztira jasotako diru-laguntzen zenbatekoa handiagoa bada diruz lagunduko den defizita baino, ebazpen honen arabera emandako laguntzaren zenbatekoa ere murriztu egingo da; hain zuzen ere, gehiegizko zenbateko hori kenduko zaio laguntzari.

Laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak, baldin eta xede bererako beste laguntzarik jaso badu, ahalik eta lasterren eman behar dio horren berri Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzari (Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboa).

5.– Eskaerak.

5.1.– Ebazpen honen II. Eranskinean (bilkura zientifikoak) eta III. Eranskinean (prestakuntza-ekintzak) ageri den eredu normalizatuaren arabera egingo dira ebazpen honetako laguntzak jasotzeko eskaerak.

Eskaera-inprimakia korporazioaren intranetean egongo da eskuragarri (www.osakidetza.net), eta web-orri horretan horretarako jarritako bitarteko telematikoen bitartez bidali ahal izango da.

Eskatzaileek, eskaera telematikoki bidali ondoren, kopia bat inprimatu behar dute, eta kopia hori behar bezala sinatu, zigilatu eta erregistratu behar da.

Inskribaketa horrek bakar bakarrik balioko du, kopia sinatu eta, dagokion dokumentazioarekin batera, Osakidetzako edozein zerbitzu erakundetako erregistroan aurkezten bada, deialdian ezarritako epean; nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezartzen diren modu eta lekuetan ere aurkeztu ahal izango da.

5.2.– Eskaerak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari zuzendu eta bidaliko zaizkio (Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboa, Araba kalea 45, 01006, Gasteiz).

5.3.– Eskaerarekin batera (II. eta III. Eranskinak) ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:

5.3.1.– Bai bilkuren kasuan, bai prestakuntza-ekintzen kasuan:

a) Sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza. Ez dira aurrekontu horretan sartuko ekintza sozialen inguruko gastuak eta Osakidetzako pertsonak bilkura edo prestakuntza-ekintzetara joateak sortutako gastuak.

b) Aurretiazko programa, honakoak jasoko dituena: ekintza zientifikoen edo prestakuntza-ekintzaren edukiaren deskribapen zehatza, eta txostengile edo irakasle nagusienen zerrenda, bakoitzaren prestakuntza edo ibilbide zientifiko eta profesionalaren azalpen labur bat jasoko duena.

5.3.2.– Horretaz gain, bilkura zientikoen kasuan (II. Eranskina):

c) Memoria, bilkuraren bidez lortu nahi diren helburuak jasoko dituena.

5.3.3.– Eta prestakuntza-ekintzen kasuan (III. Eranskina):

d) Memoria, prestakuntza-ekintzaren helburu orokorrak eta espezifikoak adierazten dituena; haren antolaketa eta logistika, ondokoak zehaztuz: egutegia, baliabide materialak (material inprimatua, gardenkiak, diapositibak), ikasleak aukeratzeko irizpideak; jardueraren egokitasuna, prestakuntza-ekintzaren edukiak zein prestakuntza-beharrei erantzuten dien eta behar hauek nola antzeman diren (ikasketak, profesionalen iritzia...) adieraziz; irakasteko metodologia, eta azken ebaluazio-sistemak.

5.4.– Eskaerak eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2011ko irailaren 30ean amaituko da.

6.– Eskaeraren hutsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskaerak behar bezala bete ez badira edo laguntza-modalitate bakoitzerako eskatzen diren agiriak erantsi ez badira, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio hutsak zuzendu edo agiriak aurkezteko. Horrela egiten ez badu, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Administrazioak, bere aldetik, eskabideari buruzko ebazpena eman eta jakinarazi beharko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7.– Eskaerak aztertzea.

Aurkeztutako eskaerak aztertzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, erakundearen zuzendari nagusiak izendatuta.

Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariordea, lau kide, eta prestakuntzaren arloko teknikari arduraduna, idazkari moduan jardungo duena.

Batzorde horrek eskaeren balorazio egokirako beharrezkotzat jotzen dituen aholkuak eskatu ahal izango ditu.

Batzordeak, laguntza-modalitate bakoitzerako aurreikusitako balorazio-irizpideak eta ponderazioak aplikatuz, egin diren eskaerak aztertu eta dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari.

8. artikulua.– Baloratzeko irizpideak eta ponderazioa.

Ondoren azalduta datozen irizpide eta ponderazio hauek aintzakotzat hartuta egin beharko da balorazio-lan hori:

1.– Bilkura zientifikoei dagokienez:

a) Ekintzaren interes zientifikoa. gehienez, 60 puntu. Irizpide hori honako hauen bidez baloratuko da:

– Aurretiazko programa: gehienez, 55 puntu.

– Bilkuraren eremu geografikoa: gehienez, 4 puntu, honela baloratuta:

– Lurralde Historikoa: puntu 1.

– EAE: 2 puntu.

– Estatukoa: 3 puntu.

– Nazioartekoa: 4 puntu.

– Bilkuran landutako jarduerak hedatu edo argitaratu daitezkeen ala ez: gehienez, puntu 1, honela baloratuta:

– Ez: 0 puntu.

– Bai: puntu 1.

b) Bilkuraren helburuak zenbateraino datozen bat Osasun Sailaren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren arlo nagusiekin: gehienez, 30 puntu. Irizpide hori honako hauen bidez baloratuko da:

– Memoria, bilkuraren bidez lortu nahi diren helburuak jasotzekoa.

c) Bestelako finantzaketa-iturririk ba al dagoen: gehienez, 10 puntu, honela baloratuta:

– Bai: 0 puntu.

– Ez: 10 puntu.

2.– Prestakuntza-ekintzei dagokienez:

a) Prestakuntza-ekintzaren helburu orokorrak eta espezifikoak. Gehienez, 15 puntu. Honela baloratuko da:

– Lortu nahi dena ez da argi adierazten: 5 puntu.

– Lortu nahi dena nahiko argi adierazten da: 10 puntu.

– Lortu nahi dena oso argi adierazten da: 15 puntu.

b) Antolamendua eta logistika. Honako hau baloratuko da: giza baliabideak eta baliabide materialak, prestakuntza emateko egutegia eta ikasleak aukeratzeko irizpideak prestakuntza-ekintzara nola egokitzen diren eta zenbateraino diren proportzionalak. Gehienez, 15 puntu.

– Proportzionaltasun txikia: 5 puntu.

– Proportzionaltasun ertaina: 10 puntu.

– Proportzionaltasun handia: 15 puntu.

c) Prestakuntza-ekintzaren egokitasuna (prestakuntza-ekintzaren helburuak betez gero, lanbidearen inguruan atzemandako premiak hobetzen diren ala ez baloratuko da). Gehienez, 30 puntu.

– Egokitasunik ez: 0 puntu.

– Egokitasun txikia: 5 puntu.

– Egokitasun nahikoa: 15 puntu.

– Egokitasun handia: 30 puntu.

d) Irakasteko metodologia. Gehienez, 20 puntu. Honela baloratuko da:

– Azalpen teorikoa: 5 puntu.

– Ikasleekiko elkarreragina eskatzen du: 10 puntu.

– Teoriko-praktikoa: 15 puntu.

– Ikasgelaz kanpoko dedikazio osagarria eskatzen du: 20 puntu.

e) Ebaluazioa. Gehienez, 15 puntu. Honela baloratuko da:

– Bertaratzearen ehunekoa: 2 puntu.

– Ikasleei inkesta, duten iritzii/gogobetetasunari buruzkoa: 5 puntu.

– Aprobetxamenduaren ebaluazioa: 10 puntu.

– Jarraipen-ebaluazioa (eraginkortasuna eta eragina): 15 puntu.

Irizpide horiek memoriaren eta aurretiazko programaren bidez baloratuko dira.

f) Bestelako finantzaketa-iturririk ba al dagoen: gehienez, 5 puntu. Honela baloratuko da:

– Bai: 0 puntu.

– Ez: 5 puntu.

Ebaluazioari lotuta egonik, memorian, programa edo eskaeran aipatu ez diren alderdiei «zero puntu» emango zaizkie.

Ebazpen honetan azaldutako baldintza guztiak beteta ere, horrek ez du esan nahi, besterik gabe, laguntza jasotzeko eskubidea lortu denik.

9.– Ebazpena.

9,1.– Deialdia Giza Baliabideetako zuzendariak ebatziko du, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartuta, eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

9.2.– Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean ebatziko da deialdia. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, ebatzi gabeko eskaerak ezetsi egin direla ulertu beharko da, halaxe ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan, ahaztu gabe lege berak Administrazioari berariaz ebatzi behar duela ere agintzen diola.

Laguntza ukatzen den kasuetan, eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak-interesdunak eskatuta-berreskuratzeko epea hilabetekoa izango da, dagokion Ebazpena argitaratzen denetik aurrera, betiere, errekurtsorik aurkeztu ez bada. Errekurtsorik aurkeztu bada, ezesteko ebazpenaren jakinarazpena egiten denetik aurrera hasiko da epea.

10.– Ordainketa.

Esleitutako diru-laguntzari dagokion kopurua, banku-transferentziaren bitartez, dagokion zerbitzu erakundearen aurrekontuan sartuko da.

11.– Onuradunen betebeharrak.

Diruz lagundutako bilkura edo prestakuntza-ekintza amaitu eta lau hilabeteko epean, laguntza jaso duen zerbitzu erakundeak, SAP Gizabide «prestakuntza-modulua» aplikazioan, bilkura edo prestakuntza-ekintzarako sortu den eremuaren barruan, zehazki, «Oharrak» izeneko atalean, bere azken balantze ekonomikoa sartu behar du.

Betebehar hori konplitzen ez bada, zerbitzu erakundea zigortua izango da; alegia, hurrengo deialdian parte hartzerik ez du izango dagokion dagokion unitate edo zerbitzuak.

12.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako gorabehera edo egoeretatik edozein aldatzen bada gerora -betiere, laguntzaren xedea beteta dagoela-, eta, aldi berean, beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik beste laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak dagokion kitapen-ebazpena emango du, esleitutako laguntzen kopuruak berriz doitu eta egokitzeko.

II. ERANSKINA / ANEXO II

BILEREN ANTOLAKUNTZA ***(prestakuntza aktibitateak kanpo)***
ORGANIZACION DE REUNIONES (excluidas actividades formativas)

Eskaera egiten duen zentroa: Organización de Servicios Solicitante:	
Unitate edo zerbitzu antolatzailea: Unidad o servicio:	

BILERARI BURUZKO DATUAK / DATOS DE LA REUNION

Bileraren izen ofiziala: Nombre oficial de la reunión:	

ESPARRU GEOGRAFIKOA (gurutze batez adierazi) / **ÁMBITO GEOGRÁFICO** (señalar con una cruz)

☐	☐	☐	☐
Lurralde historikoa Territorio histórico	**EAE** C.A.P.V.	**Estatu espainiarra** Estado Español	**Nazioartekoa** Internacional

Non izango den: Lugar de celebración:			
Herria: Localidad:			
Hasiera-data: Fecha comienzo:		***Bukaera-data:*** Fecha finalización:	
Ekintzaren iraupena (ordu-kopurua): Duración del acto (nº de horas):		***Partaide kopuru estimatua:*** Nº estimado de participantes:	
Erakunde antolatzaileak: Entidades organizadoras:			
Antolakuntza-arduradunaren izena: Nombre del responsable de la organización:			
Bileraren aktibitateen zabalkundearen argitarapena: Publicación difusión de las acividades de la reunión:			

GUZTIZKO AURREKONTUA / PRESUPUESTO TOTAL

Gastuak: Gastos:	€	***Aurreikusitako diru-sarrerak:*** Ingresos previstos:	€
Inskripzio-kuotaren zenbatekoa: Importe Cuota de inscripción:	€		
Kuota murriztuen zenbatekoa: Importe cuotas reducidas:	€	***Zero kuoten kopurua:*** Importe cuotas cero:	

Deialdi honetan eskatutako diru-kopurua: Cantidad solicitada en esta convocatoria:	€

Eskabide osoa bete behar da nahitaez
Es obligatorio rellenar toda la solicitud.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

FINANTZAKETA BESTE ITURRIEN GAINEKO BERE ARDURAPEKO AITORPENA
DECLARACIÓN RESPONSABLE SOBRE OTRAS FUENTES DE FINANCIACIÓN

Jauna/Andrea (Bileraren antolakuntzaren arduraduna) bere erantzunkizunaren pean aitortzen du (dagokiona markatu):
D./Dª (responsable de la organización de la reunión) declara bajo su responsabilidad (márquese lo que proceda):

☐ ***Prestakuntza-ekintza hau finantzatzeko EZ duela beste administrazio edo entitateen inolako diru-laguntzarik edo laguntzarik eskatu ezta jaso ere, publiko nahiz pribatuak.***
Que NO ha solicitado ni recibido ningún tipo de subvención o ayuda de otras administraciones o entidades, tanto públicas como privadas, para financiar esta reunión científica.

☐ ***BAI, eskatu edota jaso d(it)uela hurrengo diru-laguntza(k) aipatutako jarduerarako:***
Que SÍ ha solicitado y/o recibido la(s) siguiente(s) subvencion(es) para el mismo fin:

Entitatea
Entidad

Zenbatekoa
Importe

Bileraren antolakuntzaren arduradunaren sinadura
Firma del responsable de la organización de la reunión

Izena:
Nombre:

BILERA ZIENTIFIKOEN ANTOLAKUNTZARAKO ATZIKITZEKO DOKUMENTAZIOA (Markatu "X" batez):
DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR PARA ORGANIZACIÓN DE REUNIONES CIENTÍFICAS (Marcar con una "X"):

☐ ***Kontzeptutan zehaztutako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua. (Aktibitate sozialei dagozkien gastuak eta bilerara joaten diren Osakidetzako pertsonen parte-hartzearen ondorioz sortutako gastuak kanpo utziko dira)***
Presupuesto de ingresos y gastos detallados por conceptos. (Se excluirán gastos referentes a actividades sociales y los gastos originados como consecuencia de la asistencia de las personas de Osakidetza a la reunión.)

☐ ***Bilera antolatzera eraman duten helburuak jasotzen dituen Memoria.***
Memoria en la que se recojan los objetivos que han llevado a organizar la reunión.

☐ ***Ekintza zientifikoen eta beren kualifikazioa daraman txostengile nagusien zerrendaren deskripzio xehatu posiblea duen aurre-egitaraua.***
Programa preliminar con descripción detallada posible de los actos científicos y relación de ponentes principales con su cualificación.

Eskabide osoa bete behar da nahitaez
Es obligatorio rellenar toda la solicitud.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

Izen-emate hau sinatu eta aurkeztu ondoren onartua izango da. Dagokion dokumentazioarekin batera Osakidetzako erakunde zerbitzuetako erregistroetan aurkeztuko da, deialdian adierazten den epean. Halaber, 4/1999 Legeak aldatu zuen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako lekuan eta moduan ere aurkeztu ahal izango dira agiriak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Esta inscripción será válida una vez firmada y presentada, junto con la documentación correspondiente, en el registro de cualquiera de las organizaciones de servicios de Osakidetza en el plazo establecido en la convocatoria. Sin perjuicio de su presentación en los lugares y formas que establece el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (modificada por Ley 4/1999).

Erakunde Zerbitzuko Kudeatzailearen sinadura
Firma del Gerente de la Organización de Servicios

Izena:
Nombre:

Eskabide osoa bete behar da nahitaez
Es obligatorio rellenar toda la solicitud.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

III. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-EKINTZEN ANTOLAKETA

Eskaera egiten duen zentroa:	
Unitate edo zerbitzua:	

PRESTAKUNTZA-AKTIBITATEARI BURUZKO DATUAK

Prestaluntza-aktibitatearen izen ofiziala:						
Non izango den:						
Herria:						
Edizio kopurua:						
Hasiera-data:		**Bukaera-data:**				
Ordu-kopurua:	Guztira:		Teorikoak:		**Praktikoak:**	
Erakunde antolatzailea:						
Prestaluntza-aktibitatearen arduradunaren izena:						
Irakasleak:						
Prestakuntza-aktibitatea zein kolektibori zuzenduta dagoen:						
Aurreikusitako ikasle-kopurua:						

GUZTIZKO AURREKONTUA

Gastuak:	€	Diru sarrerak:	€
Inskripzio-kuota:	€		
Kuota murriztuen zenbatekoa:	€	Zero kuoten kopurua:	

Deialdi honetan eskatutako diru-kopurua:	€

Eskabide osoa bete behar da nahitaez.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

FINANTZAKETA BESTE ITURRIEN GAINEKO BERE ARDURAPEKO AITORPENA

Jauna/Andrea (Prestakuntza-aktibitatearen antolakuntzaren arduraduna) bere erantzunkizunaren pean aitortzen du (dagokiona markatu):

☐ Prestakuntza-aktibitatea hau finantzatzeko EZ duela beste administrazio edo entitateen inolako diru-laguntzarik edo laguntzarik eskatu ezta jaso ere, publiko nahiz pribatuak.

☐ BAI, eskatu edota jaso d(it)uela hurrengo diru-laguntza(k) aipatutako jarduerarako:

Entitatea

Zenbatekoa

Prestakuntza-aktibitatearen antolakuntzaren arduradunaren sinadura

Izena:

PRESTAKUNTZA-EKINTZEN ANTOLAKUNTZARAKO ATZIKITZEKO DOKUMENTAZIOA (Markatu "X" batez):

☐ Kontzeptutan zehaztutako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua. (Aktibitate sozialei dagozkien gastuak eta prestakuntza-aktibitatera joaten diren Osakidetzako pertsonen parte-hartzearen ondorioz sortutako gastuak kanpo utziko dira)

☐ Helburuen, antolakuntza eta logistikaren, aktibitatearen pertinentzia, irakaskuntzako metodologia eta azkeneko ebaluazioaren sistemen Memoria azaltzailea.

☐ Prestakuntza-ekintzaren egitarau xehetuaren eta irakasle nagusien zerrenda daraman txostengile nagusien zerrendaren deskripzio xehatu posiblea duen aurretiko egitaraua.

Izen-emate hau sinatu eta aurkeztu ondoren onartua izango da. Dagokion dokumentazioarekin batera Osakidetzako erakunde zerbitzuetako erregistroetan aurkeztuko da, deialdian adierazten den epean. Halaber, 4/1999 Legeak aldatu zuen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako lekuan eta moduan ere aurkeztu ahal izango dira agiriak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Eskabide osoa bete behar da nahitaez.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Erakunde Zerbitzuko Kudeatzailearen sinadura

Izena:

Eskabide osoa bete behar da nahitaez.